

3.EKINNOVA - FUNTSEZKO ELKARTEAK

- Gure proiektua aurrera ateratzeko kanpoko laguntza behar dogu, alde batetik, gure negozio eredu optimizateko, hau da, aplikazioa promozionatzeko hainbat pertsona famatuak (influencers) behar ditugu gai ekologikoan sentsibilizatuta daudenak. Adibidez, Jon Kortajarena, arlo ekologikoarekin oso sentsibilizatuta dago eta bere irudia oso lagungarria izango litzateke gure produktua aditzera emateko.
- Bestalde, kapitala lortzeko eta arriskuak murrizteko gure kasuan “crowdfunding” erabiliko dogu. Finantzaketa kolektibo sare bat da, normalean online izandakoa, dohaintza ekonomikoen bidez edo beste dohaintzen bidez, proiektu jakin bat finantzatzen du.
Langile edo edozein baliabideen aportazioa hona izango zan, horrela arriskuak murriztea lortuko dogu eta gure proiektua porrotara ez joatea lortuko dogu.
- Horretaz aparte, bizkaiko garbiguneak kudeatzen dituen erakundearekin ,GARBIKER deitzen dena, aliantza bat egin ahal dugu, laguntza finantziarioa lortzeko eta mendietan eta ikastetxetan kontenedore gehiago jartzeko gure aplikazioaren erabilera errazteko.
- Gure egitasmoa ikastetxetatik zabaltzeko Agenda 21 egongo litzateke, ikastoletan dagoan erakunde bat zeinek gai ekologikoarekin sentsibilizazio lanak egiten dituen.
- Aplikazioa programatzeko, aurretik eskuratu ditugun baliabideak gure aplikazioa egingo edo programatuko duten enpresetan inbertituko dogu.
- Azkenik, gobernuz kanpoko erakundeekaz harremana izatea be, interesgarria izango litzateke, gure proiektua aurrera eramatera laguntzeko.